



**AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR**  
**BERRIOZARKo UDALA**

**CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES Y  
CONVENIOS A ASOCIACIONES LOCALES PARA LA  
ORGANIZACION DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS.  
AÑO 2016**

El Ayuntamiento de Berriozar concederá ayudas para la organización de actividades conforme a las siguientes

**BASES**

**1.- OBJETO**

La presente convocatoria tiene como objetivo general establecer el régimen de concesión de ayudas a asociaciones de Berriozar con la finalidad de apoyar las actividades deportivas:

Ayudas a Asociaciones Deportivas, equipos o deportistas.

Las acciones objeto de subvención y/o Convenio serán:

1. Acciones ligadas a la gestión:
  - 1.1 De Escuelas Deportivas y equipos federados,
  - 1.2 De programas y actividades,
  - 1.3 Espectáculos deportivos,
  - 1.4 Gestión de instalaciones,
2. Equipos de Fútbol sala, Fútbol Boscas (no federados).
3. Modalidades individuales.
4. Formación y Charlas.
5. Otras acciones no recogidas en apartados anteriores.

**CRITERIOS GENERALES:**

1.- Para la concesión de subvenciones y la firma de Convenios de Colaboración se requerirá que la solicitud responda al objeto de la convocatoria y que las solicitudes cumplan con las Normativas Municipales de Berriozar (Planes Igualdad, Ordenanza Euskera, etc...).

2.- Para la concesión de subvenciones y la firma de

<sup>1</sup> El Registro está en las oficinas del Ayuntamiento, Plaza Euskal Herria, 1. Su horario de atención al público es de 8:00 a 14:00 horas, de lunes a viernes.

**TOKIKO ELKARTEEK ANTOLATZEN DITUZTEN  
KIROL JARDUERAK LAGUNTZEKO DEIALDIA  
(DIRULAGUNTZAK ETA HITZARMENAK).  
2016. URTEA.**

Berriozarko Udalak jarduerak antolatzeko dirulaguntzak emanen ditu, arau hauen arabera:

**ARAUAK**

**1.- HELBURUA**

Deialdi honek Berriozarko elkarteak diruz laguntzeko araudia ezarri nahi du, honako esparru hauetan egiten diren kirol jarduerak sustatzeko:

Kirol elkarte, talde edo kirolariendako laguntzak.

Ondoko ekintzak izanen dira diru laguntzen eta/edo hitzarmenen xede:

1. Ondokoak kudeatzeari lotutako ekintzak:
  - 1.1 Kirol Eskolak eta talde federatuak.
  - 1.2 Programak eta jarduerak,
  - 1.3 Kirol emanaldiak,
  - 1.4 Instalazioak kudeatzea,
2. Aretu-futboleko taldeak, Boscas Futbola (federatu gabeak).
3. Banako modalitateak.
4. Prestakuntza eta Hitzaldiak.
5. Aurreko ataletan jasotzen ez diren beste ekintza batzuk.

**IRIZPIDE OROKORRAK:**

1.-Dirulaguntzak jasotzeko eta Lankidetzak Hitzarmenak sinatzeko, eskaerak, alde batetik, deialdiaren xedearekin bat etorri beharko du eta, bestetik, Berriozarko udal arautegia bete (Berdintasun Plana, Euskararen Ordenantza, Kontziliazio-Plana, Ohitura Osasungarriak e.a.).

2.- Diru laguntzak jasotzeko eta lankidetzak hitzarmenak

Erregistroa Udaleko Auzo-Bulegoan dago, Euskal Herria plaza, 1. Jendea hartzeko ordua: 8:00etatik 14:00etara, asteleheneetik ostiralera.

Convenios de Colaboración se valorarán los siguientes aspectos: Modalidad deportiva, tipología (federada), edad practicantes, Número de deportistas (mínimo y máximo), Duración de la actividad (puntual, Campeonato, temporada...), Interés general de la actividad, la filosofía: educativa, participativa, que impulse relaciones equitativas de igualdad de oportunidades, el que fomente la sostenibilidad ambiental, promoción de estilos de vida saludable: alimentación, higiene, práctica deportiva.

3.- No existe posibilidad de trasladar subvenciones de unas actividades y/o equipos a otros/as.

4.- Exclusivamente se valorarán a los deportistas empadronados en Berriozar, exceptuando actividad femenina y promoción de deportes nuevos: discriminación positiva.

5.- Éstos criterios son los resultante de la experiencia de ejercicios anteriores en la gestión propia. A nivel económico las partidas económicas se concretan de la regla: Gastos tipo – Ingresos tipo (principalmente inscripciones) = aportación municipal. Según la experiencia de ejercicios anteriores.

6.- No podrán justificarse como gastos las donaciones a terceros.

7.- Se subvencionan o convenian exclusivamente los conceptos que el Ayuntamiento atiende cuando gestiona actividades.

En general son las siguientes:

Gastos de competición (inscripción, mutualidad, licencias...).

Gastos de organización: correspondientes a actividades como Torneos, Campeonatos, Charlas...(%)

No se atienden ni sanciones, ni depósitos o fianzas.

Dietas y kilometraje de personal técnico:

La misma que defina el Ayuntamiento para su personal.

Los profesionales no se entienden como Responsable Área.

Asignación entrenadores y profesionales:

Voluntarios locales: Piscina + Gimnasio + 150€ (Dietas y KM).

Voluntarios no locales: 400€ (Dietas y KM).

Voluntarios menores: Instalación + Piscina.

Profesionales: Con contrato y/o autónomos (máximo 30 €/hora)

Equipación de actividad o competición (futbito/fútbol, atletismo, baloncesto, herri kirola: pantaloneta, camiseta, medias...gimnasia rítmica: body, artes marciales: "kimono", pelota: polo ó camiseta, otras modalidades: similar...). En porcentajes similares a los destinados por el Ayto. Una equipación debe durar tres ejercicios, o como máximo se atenderá 1/3 del coste de la adquisición

sinatzeko, ondoko alderdiak baloratuko dira: Kirol modalitatea, mota (federatua), parte-hartzaileen adina, kirolari kopurua (gutxienez eta gehienez), jardueraren iraupena (unean unekoa, txapelketa, denboraldia...), jarduerak pizten duen interes orokorra, filosofia: hezkuntza, parte-hartzea, aukera berdintasunaren araberako harremanak bultzatzea, ingurumen iraunkortasuna bultzatzea, bizimodu osasungarriak sustatzea (elikadura, higiene, kirol jarduera...).

3.- Ezin da jarduera eta/edo talde batzuetatik beste batzuetara diru laguntzarik mugitu.

4.- Berriozarren errolatutako kirolariak baizik ez dira baloratuko, emakumeen jarduera eta kirol berrien sustapena izan ezik: diskriminazio positiboa.

5.- Irizpide horiek aurreko urteetan kudeaketa zuzenean jasotako eskarmentuaren ondorioa dira. Ekonomikoki kontu-sailak honela finkatzen dira: Gastu mota — Sarrera mota (izen-emateak batez ere) = udalaren ekarpena. Aurreko ekitaldietan izandako eskarmentuaren arabera.

6.- Beste pertsona batzuei egindako dohaintzak ezin izanen da gastu gisa justifikatu.

7.- Diruz lagunduko dira, soilik, (edo hitzarmenetan jaso) jarduerak kudeatzerakoan Udalak kontuan hartzen dituen kontzeptuak.

Oro har, honakoak dira:

Lehiaketa-gastuak (izen-ematea, mutualitatea, lizentziak...)

Antolaketa gastuak: txapelketa, lehiaketak edo mintzaldiak antolatzekeo gastuak (%)

Ez da kontuan hartuko zehapenik, gordailurik edo fidantzarik.

Langile teknikoek ordainak eta kilometrajea:

Udalak bere langileentzat finkatzen duen bera.

Langileak ez dira arloko arduraduntzat joko.

Entrenatzaile eta langileen diru-kopurua:

Tokiko boluntarioak: igerilekua + gimnasioa + 150 euro (ordainak eta km.)

Tokikoak ez diren boluntarioak: 400 euro (ordainak eta km.)

Boluntario adingabeak: instalazioa + igerilekua.

Langileak: kontratudunak eta/edo autonomoak (gehienez 30 euro / orduko)

Jarduerako edo lehiaketako jantziak (bosnako futbola / futbola, atletismoa, saskibaloia, herri kirola: galtzamotzak, elastikoa, galtzerdiak...gimnastika erritmikoa: bodya, arte martzialak: "kimonoa", pilota: poloa edo elastikoa, gainerako modalitateak: antzekoa...). Udalak ezarritakoaren antzeko ehunekoak. Jantziek hiru ikastute iraunen dute. Bestela, jantziak talde guztientzat urtero erosten badira, erosketaren gastuaren herena kontuan hartuko da.

de equipación si se compra todos los años y para todos los equipos.

Material deportivo: el necesario para la práctica de la modalidad, en porcentajes similares a los destinados por el Ayuntamiento.

Alquiler de instalación: procurando el máximo de amortización en la utilización de las canchas deportivas:

Campo de fútbol, polideportivo: entrenando mínimo 2 equipos a la vez,

Frontón: ratio según modalidades.

Seguro RC y seguro deportivo (en caso de no estar federados).

Desplazamientos: es obligación de padres/madres o tutores, desplazar a los deportistas a los lugares de competición.

El caso de equipos que participan en competiciones regionales o interregionales se atenderá como justificable el desplazamiento por vehículo, atendiendo un máximo de vehículos por equipo llenado cada coche con 5 personas.

Botiquín: se entiende obligatoria la existencia de botiquín en las instalaciones donde se desarrolla actividad deportiva: Polideportivos, Campos de fútbol, etc.... El contenido de éstos elementos serán productos genéricos.

8.- Será obligatoria la presentación de presupuesto de ingresos y gastos correspondientes a la actividad. Así como una memoria explicativa con los datos más relevantes: número participantes, edades, sexos, actividades, publicidad, si fuera posible fotografías o soportes audiovisuales...

9.- Torneos, Campeonatos, Charlas, Exposiciones...incluir el escudo del Ayto. Como PATROCINADOR.

10.- Equipos que compiten: escudo del Ayto. Berriozar en la equipación de competición. Así mismo en la publicidad/cartelería que informe de las competiciones.

11.- Deportistas individuales: concepto subvención : gastos federativos ( mutualidad, inscripciones en competiciones, etc...). Deportistas individuales que participan en Clubs o actividades ya subvencionadas por el Ayto. no podrán acceder a subvención individual.

12.- Equipos Boscós: concepto subvención: inscripción de equipos competición. Para justificar será necesaria la factura de inscripción a competición y/o alquiler de instalación, así como la relación de deportistas.

13.- Salidas monte, salidas bici: conceptos subvencionables: seguros deportivos, licencias, publicidad de actividad, inscripciones en competiciones.

14.- Lunchs: No se subvencionarán actividades que consistan exclusivamente, en organización de "lunchs", no podrá ser superior al 20% del presupuesto total de la actividad. Serán diseñados atendiendo los criterios de Hábitos Saludables: alimentación sana, ecológica, natural, no "chuches", ni bebidas azucaradas, con soportes respetuosos con el medio ambiente.

15- Es objeto del Ayuntamiento revitalizar las entidades locales, tanto asociaciones como clubs, procurando fórmulas de subvención-convenio como el que se suscribe. También queremos potenciar las entidades

Kirol materiala: Modalitatea egiteko beharrezkoa dena. Udalak ezarritakoaren antzeko ehunekoak.

Instalazioen alokairua: jokalekuak erabiltzerakoan, ahalik eta gehien erabiliz:

Futbol-zelaia, kiroldegia: gutxienez 2 talde batera entrenamenduan,

Frontoia: modalitateen araberako ratioa.

E.Z. aseguru eta kirol aseguru (federatuta ez badaude)

Joan-etorriak: gurasoen edo tutoreen ardura da kirolariak lehiaketa-tokietara eramatea.

Taldea eskualde edo eskualdearteko lehiaketan ari bada, ibilgailuz egindako joan-etorria kontuan hartuko da. Dena dela, gehienezko ibilgailu kopurua finkatuko da (5 pertsona ibilgailu bakoitzean).

Botikategia: kirol-jarduera egiten den inslazioetan botikategia izatea derrigorrezkoa da: Kiroldegia, futbol-zelaiak eta abar. Botikategietan generikoak erabiliko dira.

8.- Derrigorrezkoa izanen da jardueraren sarreren eta gastuen aurrekontua aurkeztea, baita datu nagusiak bilduko dituen azalpen-memoria ere. parte-hartzaileen zenbakia, adina, sexua, jarduerak, publizitatea eta, ahal bada, argazkiak edo ikusentzunezko euskarriak.

9.- Txapelketa, Lehiaketak, Mintzaldiak, Erakusketak... Udalaren armarría jarri behar da, LAGUNTZAILE gisa.

10.- Lehiaketako taldeak: Berriozarko Udalaren armarría lehiaketako jantzietan, baita lehiaketen berri emanen duten publizitate eta karteletan ere.

11.- Banako kirolariak: dirulaguntzaren kontzeptua: Federazioko gastuak (mutualitatea, izen ematea lehiaketetan...) Banako kirolariak ez du banako dirulaguntzarik jasoko Udalak diruz laguntzen duen klub edo jarduera batean parte hartzen badu.

12.- Boscós-taldeak: dirulaguntzaren kontzeptua: taldeak lehiaketan izena ematea. Gastua justifikatzeko beharrezkoa izanen da, batetik, lehiaketan izena emategatik edo instalazioa alokatzeagatik egindako faktura eta, bestetik, kirolarien zerrenda.

13.- Mendi eta bizikleta ibilaldiak: diruz lagunduko diren kontzeptuak: kirol aseguruak, lizentziak, publizitatea, izen-ematea lehiaketetan.

14.- Otamenak: Ez da diruz lagunduko otamena besterik ez den jarduerarik. Gastua ez da izanen jardueraren aurrekontuaren %20 baino handiagoa. Otamenak ohitura osasungarriak kontuan hartuta antolatuko dira: elikagai osasungarriak, ekologikoak eta naturalak; litxarreririk ez; azukredun edaririk ez; ingurumena zaintzeko egokiak diren tresnak erabilia.

15- "Udalaren helburua da tokiko erakundeak suspertzea, nola elkarteak hala klubak. Horretarako, sinatutako dirulaguntza-hitzarmenak bezalako bideak eskaintzen ditu. Halaber, tokiko erakunde pribatuak ere (denda eta saltokiak) sustatu nahi ditugu. Ildo horretan, hitzarmena sinatzen duten elkarteei gastuen ehuneko aipagarria Tokiko Merkataritzan egitea aholkatzen diegu."

locales privadas, tiendas, comercios, etc... por lo que será aconsejable para las asociaciones que firman convenio destinar un porcentaje reseñable de los gastos en Comercio Local.

16- No se atenderá un gasto por concepto de organización superior al 10 % del coste total de la actividad.

## CRITERIOS PARTICULARES

Se establecen unos criterios particulares para cada acción objeto de subvención y/o Convenio:

1. Para equipos: según ACTIVIDAD, MODALIDAD, EDAD, TIPOLOGÍA, DURACIÓN, Nº DE EQUIPOS Y DEPORTISTAS LOCALES.
  1. Categoría de adultos y Juveniles máximo un equipo por sexo y modalidad.
  2. Categoría de Cadetes, Infantiles máximo 2 equipos por sexo y modalidad.
  3. Categorías inferiores máximo 4 equipos por sexo y modalidad.
  4. Para realizar un segundo, tercer o cuarto equipo del a misma modalidad y categoría, será obligatorio tener lleno el anterior.
  5. Para tener dos equipos de la misma modalidad y categoría, será obligatorio que ambos superen el número mínimo de personas para tener subvención, así como el 80% de las fichas máximas a poder tramitar.
2. Programas y actividades:
  6. Actividades y Campeonatos Populares (No Federados) (6 equipos o más, mínima duración 1 mes).
  7. Actividades y Campeonatos Populares (No Federados), (Menos de 6 equipos, menor duración a 1 mes).
3. Espectáculos deportivos:

Actividades de interés General:

  - a. Dirigidas a toda la población, más de 250 participantes y/o deportistas de alto nivel.
  - b. Espectáculos y Campeonatos Federados.
4. Gestión de instalaciones, cesión para el desarrollo de actividad de equipamiento, material y/o instalación (según tasas municipales).
  - \* Instalaciones.
  - \* Oficinas.
  - \* Almacenes.
5. Actividades que necesitan de personal municipal (Serv. Múltiples, Policía Municipal, Técnico Deportivo, Cuidador Zona Deportiva...)

16- Ez da onartuko jardueraren koste osoaren %10 baino handiagoa den antolaketako gastua.

## IRIZPIDE PARTIKULARRAK

Irizpide partikularrak ezarri dira diru laguntzaren eta/edo hitzarmenaren xede diren ekintza bakoitzarendako:

1. Taldeendako: JARDUERA, MODALITATE, ADIN, MOTA, IRAUPEN, TALDE KOPURU ETA HERRIKO KIROLARIEN arabera
  1. Helduen eta gazteen kategorian, talde bat gehienez sexu eta modalitate bakoitzeko.
  2. Kadete eta haurren kategorian, 2 talde gehienez sexu eta modalitate bakoitzeko.
  3. Beheko kategorietan, 4 talde gehienez sexu eta modalitate bakoitzeko.
  4. Modalitate eta kategoria bereko bigarren edo hirugarren talde bat egiteko, nahitaezkoa izanen da aurrekoa beterik izatea.
  5. Modalitate eta kategoria bereko bi talde izateko, nahitaezkoa izanen da biek diru laguntza izateko gutxieneko lagun kopurua gaintzea, baita izapideak egin ahal izateko gehieneko fitxen %80 ere
2. Programak eta jarduerak:
  6. Herri jarduerak eta txapelketak (federatu gabeak) (6 talde edo gehiago, gutxieneko iraupena: hilabetekoa).
  7. Herri jarduerak eta txapelketak (federatu gabeak) (6 talde baino gutxiago, hilabetetik beherako iraupena):
3. Kirol ikuskizunak:

Interes orokorreko jarduerak:

  - a. Herritar guztiei zuzenduak, maila altuko 250 parte-hartzaile eta/edo kirolari baino gehiago.
  - b. Ikuskizunak eta txapelketak (federatuak).
4. Instalazioak kudeatzea, ekipamendua, materiala eta/edo instalazioa jarduera garatzeko uztea (udal tasen arabera).
  - \* Instalazioak
  - \* Bulegoak.
  - \* Biltegiak.
5. Udal langileak behar dituzten jarduerak (zerbitzu anitzetarako langileak, udaltzainak, kirol teknikaria, kiroldegiko zaindaria...)

6. Equipos de Fútbol sala, Fútbol Boscos (No federados).  
Bolsa máxima subvención para distribuir.  
Partida máxima por deportista empadronado.  
Reparto equitativo entre solicitudes.  
Será obligatorio incluir relación de jugadores inscritos certificada por la organización de la competición.
7. Modalidades individuales.  
Bolsa máxima subvención para distribuir.  
Partida máxima por deportista empadronado.  
Desarrollo actividad toda la temporada.  
Obligación de estar empadronado.  
Incompatible con ayudas a Asociaciones y/o campeonatos, actividades que ya reciban subvención del Ayto.  
Reparto equitativo entre solicitudes.
8. Formación y Charlas.  
Bolsa máxima subvención para distribuir.  
Partida máxima por charla.  
Reparto por modalidades definidas.  
Resto reparto equitativo entre solicitudes.
9. Otras acciones no recogidas en apartados anteriores.  
Bolsa máxima subvención para distribuir.  
Reparto equitativo entre solicitudes.

#### Consignación económica:

1. Deportistas individuales: 100€  
Modalidades individuales.  
Bolsa máxima subvención para distribuir.  
Partida máxima por deportista empadronado: 100€.  
Desarrollo actividad toda la temporada.  
Obligación de estar empadronado.  
Incompatible con ayudas a Asociaciones y/o campeonatos, actividades que ya reciban subvención del Ayto. imposibilitan que sus deportistas pidan individualmente.  
Reparto equitativo entre solicitudes.
2. Equipos de Fútbol Boscos (No federados): 520€  
Bolsa máxima subvención para distribuir.  
Partida máxima por deportista empadronado: 10 €/deportista emp.  
Reparto equitativo entre solicitudes.  
Será obligatorio incluir relación de jugadores inscritos certificada por la organización de la competición.
3. Otras acciones no recogidas en apartados anteriores : Espectáculos: Formación y Charlas: 200€  
  
Otras acciones no recogidas en apartados anteriores.  
No se atenderán solicitudes de modalidades

6. Areto-futboleko taldeak, Boscos Futbola (federatu gabeak).  
Diru laguntza banatzeko gehieneko burtsa.  
Erroldatutako kirolari bakoitzeko gehieneko kontu saila.  
Eskaeren arteko bidezko banaketa.  
Izena eman duten jokalarien zerrenda sartu beharko da nahitaez. Txapelketako antolakuntzaren ziurtagiria izan beharko du zerrendak.
7. Banako modalitateak.  
Diru laguntza banatzeko gehieneko burtsa.  
Erroldatutako kirolari bakoitzeko gehieneko kontu saila.  
Jarduera denboraldi osoan garatzea.  
Erroldatuta egon behar da. Ez da bateragarria Udalak elkarte eta/edo txapelketa eta jardueri emandako diru laguntzekin.  
Eskaeren arteko bidezko banaketa.
8. Prestakuntza eta Hitzaldiak.  
Diru laguntza banatzeko gehieneko burtsa.  
Gehieneko kontu saila hitzaldi bakoitzeko.  
Ezarrirako modalitateen araberako banaketa.  
Gainerakoa, eskaeren arteko bidezko banaketa.
9. Aurreko ataletan jasotzen ez diren beste ekintza batzuk.  
Diru laguntza banatzeko gehieneko burtsa.  
Eskaeren arteko bidezko banaketa.

#### Diru-kopuruak:

1. Banako kirolariak: 100€  
Banako modalitateak.  
Diru laguntza banatzeko gehieneko burtsa.  
Erroldatutako kirolari bakoitzeko gehieneko kontu saila: 150 €  
Jarduera denboraldi osoan garatzea.  
Erroldatuta egon behar da. Bateriaezina elkarte eta/edo txapelketek jasotzen duten dirulaguntzarekin. Jarduerak Udalaren dirulaguntza jasotzen badu, jarduerako kirolariek ezin dute banako dirulaguntzarik eskatu.  
Eskaeren arteko bidezko banaketa.
2. Boscos Futboleko taldeak (federatu gabeak): 520 €  
Diru laguntza banatzeko gehieneko burtsa.  
Erroldatutako kirolari bakoitzeko gehieneko kontu saila: 10 € / erroldatutako kirolari bakoitzeko  
Eskaeren arteko bidezko banaketa.  
Izena eman duten jokalarien zerrenda sartu beharko da nahitaez. Txapelketako antolakuntzaren ziurtagiria izan beharko du zerrendak.
3. Aurreko ataletan jaso gabeko ekintzak: Ikuskizunak: Prestakuntza eta Hitzaldiak: 200 €

que ya se gestionen mediante convenio desde el Ayuntamiento.

Bolsa máxima subvención para distribuir.

Reparto equitativo entre solicitudes.

Total: 820 €

## 2.- REQUISITOS PARA LA SOLICITUD DE AYUDAS

### 2.1. DE LAS ASOCIACIONES:

- a) Estar legalmente constituida en la fecha de presentación de la solicitud.
- b) Estar inscrita en el Registro Municipal de Asociaciones Locales (o tener solicitada la inscripción antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes) y tener los datos del registro actualizados.
- c) Tener su domicilio social en Berriozar.
- d) De las personas físicas: estar empadronadas en Berriozar: Modalidades individuales.
- e) Estar al corriente de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social y de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.

### 2.2. DE LAS ACTIVIDADES PROGRAMADAS:

- a) Ser públicas y estar abiertas a todas las personas vecinas de Berriozar.
- b) Todas las actividades subvencionadas se comunicarán con tiempo y datos suficientes al área municipal correspondiente para la publicación en agendas y web municipal.
- c) Tener carácter de espectáculo, representar a la localidad, formar parte de una competición reglada, ser de interés general.

## 3.-PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

La solicitudes se presentarán en el Registro del Ayuntamiento entre el 1 y el 15 de abril de 2016

El plazo será improrrogable.

## 4.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Ficha modelo 1 por cada entidad solicitante

Ficha modelo 2 por cada actividad/equipo/espectáculo para la que se pida subvención.

Solicitud de abono por transferencia. Documento firmado por la entidad bancaria

Las fichas se podrán recoger en la Oficina de Atención Ciudadana o en la página web municipal ([www.berriozar.es](http://www.berriozar.es)).

## 5.- VALORACIÓN

Cada Comisión Municipal valorará las solicitudes de su área y hará la propuesta correspondiente a la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento, detallando la

Aurreko ataletan jaso gabeko ekintzak.

Ez dira kontuan hartuko Udalaren hitzarmenaren bidez kudeatzen diren modalitateei buruzko eskaerak.

Diru laguntza banatzeko gehieneko burtsa.

Eskaeren arteko bidezko banaketa.

Guztira: 820 €

## 2. DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK.

### 2.1. ELKARTEENAK:

- a) Eskaera egiten den egunean legalki eratuta egotea.
- b) Tokiko Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta egotea (edo inskripzioa eskatuta izatea eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen) eta erregistroko datuak eguneratuak izatea.
- c) Helbide soziala Berriozarren izatea.
- d) Pertsona fisikoenak: Berriozarren erroldatuta egotea: Banako modalitateak.
- e) Betebehar fiskalak, Gizarte-Segurantzakoak eta udal zergak ordainduta izatea.

### 2.2. PROGRAMATUTAKO JARDUERENAK:

- a) Publikoak izatea eta berriozartar guztientzat zabalik.
- b) Diruz lagundutako jarduera guztien berri emanen da bakoitzari dagokion udal arloan (garaiz eta beharrezko datu guztiak), udal web orrian eta agendan horren berri argitara dadin.
- c) Ikuskizun izaera izatea, herria ordezkatzeko, araututako txapelketa batekoa izatea, interes orokorrekoa izatea.

## 3.-ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Udal Erregistroan aurkeztuko dira eskaerak, 2016ko apirilaren 1etik 15era

2. Epea ezin izanen da luzatu.

## 4.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Erakunde eskatzaile bakoitzak 1. ereduko fitxa beharko du

2. ereduko fitxa bat, diru laguntzaren xede den jarduera/talde/ikuskizun bakoitzeko.

Transferentziaren bidezko abonua-eskaera. Bankuak sinatutako agiria

Fitxak Auzo-Bulegoan jaso ahalko dira, edo, bestela, udal webgunean ([www.berriozar.es](http://www.berriozar.es)).

## 5.- BALORAZIOA

Udal batzorde bakoitzak bere alorreko eskaerak baloratuko ditu, eta Udaleko Gobernu Batzordeari

relación de solicitantes para los que se propone la concesión y para qué actividades o actuaciones.

Los criterios de valoración se especifican en las bases de la Convocatoria.

#### 6.- RESOLUCIÓN

- 6.1. La resolución de las solicitudes se llevará a cabo por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Berriozar, atendiendo las propuestas de las Comisiones Municipales.
- 6.2. Contra dicha resolución cabrá interponer optativamente uno de los siguientes recursos:  
Recurso CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el órgano competente de la Jurisdicción Contencioso-Administrativo de Navarra en el plazo de DOS MESES contados desde el día siguiente al de notificación de la resolución.  
Recuso de ALZADA ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo de UN MES siguiente a la fecha de notificación de esta resolución.  
Recurso de REPOSICION ante el mismo órgano autor del acto en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución.
- 6.3. La concesión de subvenciones se publicarán en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web municipal.

#### 7.- MODO DE PAGO

- 7.1. Los pagos se realizarán del modo siguiente:
  - El 90% en el plazo de 15 días a partir de la fecha de concesión, en concepto de adelanto.
  - El 10% restante en el plazo de 15 días a partir de la fecha de aprobación por la Junta de Gobierno Local de las memorias de actuaciones, y siempre antes de la finalización del primer trimestre del ejercicio siguiente.
- 7.2. El el caso de SUBVENCIONES POR ACTIVIDADES la cantidad concedida no podrá ser superior al 75% del costo real de la actividad.  
  
En caso de que las cantidades adelantadas fueran superiores al 75% del gasto final realizado, la entidad beneficiaria deberá reintegrar la cantidad percibida en exceso. En ningún caso la cantidad económica recibida será superior a la diferencia entre gastos e ingresos producidos por la organización de la actividad.
- 7.3. En el caso de los CONVENIOS cada entidad firmará un convenio particular con el Ayuntamiento en el que se recogerán las condiciones particulares así como la forma de pago.

#### 8.- OBLIGACIONES

- Las entidades beneficiarias quedarán obligadas a:
- a) Realizar las actividades y actuaciones objeto de la subvención .
  - b) Comunicar al Ayuntamiento los cambios relevantes surgidos en el desarrollo de los

eginen dio behar den proposamena. Ondokoak zehaztu beharko ditu horretarako: laguntzen xede diren eskatzaileen zerrenda eta zer jarduera edo emanalditarako izanen diren.

Balorazio irizpideak deialdiaren oinarrietan agertzen dira.

#### 6.-. EBAZPENA

- 6.1. Berriozarko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak emanen du eskaerei buruzko ebazpena, Udal Batzordeen proposamenak kontuan hartuta.
- 6.2. Ebazpenaren kontra honako errekurtsio hauetako bat jarri ahalko da, aukeran:  
ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-errekurtsioa, Nafarroako Administrazioarekiko Auzi-Jurisdikzioko organo eskudunari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik BI HILABETEKo epean.  
GORA JOTZEKO errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta ONDOKO HILABETEAN.  
BERRAZTERTZEKO errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik HILABETEKo epean.
- 6.3. Dirulaguntzen ebazpena Udaletxeko iragarki-taulan eta udal web orrian argitaratuko da.

#### 7.- ORDAINTZEKO MODUA

- 7.1 Dirulaguntzak honela ordainduko dira:
  - %90, aurrerakin gisa, 15 eguneko epean, laguntza ematen den egunean hasita.
  - Gainerako %10a 15 eguneko epean, Tokiko Gobernu Batzordeak jardueren txostenak onartzen dituen egunean hasita, eta beti hurrengo ekitaldiaren lehen hiru hilekoa bukatu baino lehen.
- 7.2. JARDUEREI EMANDAKO DIRU LAGUNTZEN kasuan, emandako kopurua ezin izanen da jardueraren benetako kostuaren %75 baino altuagoa izan.  
  
Aurreratutako kopuruak bukaeran egindako gastua baino %75 handiago badira, erakunde onuradunak itzuli beharko du soberakina. . Jasotako diru kopurua ez da inolaz ere izanen jarduera antolatzeak sortzen dituen gastuen eta izandako diru sarreren arteko aldea baino handiagoa.
- 7.3. HITZARMENEn kasuan erakunde bakoitzak sinatuko du hitzarmen berezi bat Udalarekin. Bertan kasu bakoitzaren baldintza bereziak jasoko dira.

#### 8.- BETEBEHARRAK

Ondoko betebeharrak izanen dituzte erakunde onuradunek:

- a) Diru laguntzaren xede diren jarduerak eta emanaldiak gauzatzea.
- b) Udalari jakinaraztea diruz lagundutako programak garatzean sortu diren aldaketa nabariak Diruz lagundutako edo hitzarmenean sartutako

programas subvencionados. La notificación de cambio de actividad subvencionada o conveniada debe realizarse previa a la realización de ésta y con la conformidad del Ayto.

c) Facilitar la labor de los/las evaluadores.

d) En la propaganda empleada para difundir las actividades y programas, sea cual sea el formato, se citará al Ayuntamiento de Berriozar.

e) El texto de la propaganda de las actividades figurará en castellano y en euskera. Para cumplir con este requisito se pone a disposición de los colectivos la ayuda del coordinador o coordinadora municipal del área correspondiente, así como la del Servicio de Euskera (euskara@berriozar.es).

f) En el caso de que las actividades subvencionadas reciban ayuda económica de otro organismo deberá comunicarse Ayuntamiento de Berriozar.

#### 9.- JUSTIFICACIÓN DE GASTOS Y MEMORIA DE ACTIVIDADES

a) El último día para presentar en el registro del Ayuntamiento la memoria de actividades realizadas, será el 15 de enero del año 2017. El plazo de justificación será improrrogable.

b) Se presentará la siguiente documentación:

- Memoria de actividades con los siguientes conceptos: descripción detallada de la actividad realizada, número de participantes y evaluación de los objetivos planteados.

- Balance económico de la actividad realizada, firmado por persona competente que refleje gastos e ingresos relativos a la actividad( Art. 30.4 de la Ley General de Subvenciones).

- Los gastos se justificarán mediante facturas (originales o fotocopias compulsadas) en las que deberá aparecer: nombre y apellidos y NIF de la persona que recibe el dinero, concepto, importe y datos de la entidad que hace el abono.

- No se admitirán como justificación recibos emitidos por personas físicas por importes superiores a 125€.

- Las facturas se presentarán debidamente ordenadas y sumadas, agrupadas por tipos de actividades.

- Los justificantes deberán responder al coste total de las actividades realizadas, no solo a la cantidad del a subvención (75% máximo de subvención más 25% restante).

- A las fichas se podrá añadir la documentación que la entidad beneficiaria de la subvención crea conveniente y siempre, se adjuntará una copia del los folletos, carteles, relación de jugadores/as u otro tipo de soportes publicitarios utilizados para la difusión entre la población de cada una de las actividades.

jarduera aldatzeko jakinarazpena egin behar da ekintza egin baino lehen eta Udalak oniritzia emanda.

c) Ebaluatzaileen lana erraztea.

d) Jarduerak eta programak zabaltzeko erabiltzen den propagandan —formatua edozein izanik ere— Berriozarko Udala aipatuko da.

e) Jardueren propagandaren testua gaztelaniaz eta euskaraz egonen da. Baldintza hori betetzeko, ondoko bien laguntza izan ahalko dute taldeek: behar den alorreko udal koordinatzailearena eta Euskara Zerbitzuarena (euskara@berriozar.es).

g) Diruz lagundutako jarduerak beste erakunde baten diru laguntza jasotzen badute, Berriozarko Udalari eman beharko zaio horren berri.

#### 9.- GASTUEN JUSTIFIKAZIOA ETA JARDUEREN MEMORIA.

a) Egindako jardueren memoria-txostena Udaletxeko Erregistroan aurkezteko azken eguna 2017ko urtarrilaren 15a izanen da. Justifikazioa egiteko epea luzaezina izanen da.

b) Honako agiriak aurkeztuko dira:

- Kontzeptu hauek bilduko dituen memoria-txostena: egindako jardueraren azalpen zehatza, partaideen kopurua eta helburuen ebaluazioa

- Egindako jardueraren balantze ekonomikoa, jarduerarekin lotutako sarrerak eta gastuak azalduko dituen eta pertsona eskudunak sinatua (Dirulaguntzei Buruzko Lege Orokorraren 30.4 art.).

- Gastuen fakturak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak) honako datuak izanen dituztenak: dirua jasoko duen pertsonaren izen-abizenak eta IFZ, kontzeptua, zenbatekoa eta ordainketa eginen duen erakundearen datuak.

- Ez da justifikazio gisa onartuko pertsona fisikoek egindako ordainagiririk, 125 euro baino zenbateko handiagokoak badira.

- Fakturak ordenatuta (jardueren arabera sailkatuta) eta kopuruak batuta aurkeztuko dira.

- Fakturak egindako jardueren gastu osoa justifikatu beharko dute, ez soilik jasotako dirulaguntza; hots, dirulaguntzaren gehienezko %75, gehi gainerako %25.

- Erakunde onuradunak egokitzen jotzen dituen gainerako agiriak aurkeztu ahalko dira. Edonola ere, beti, foileto, kartel, kirolarien zerrenda edo herritarren artean jardueraren berri emateko erabilitako bestelako publizitate-euskarrien kopiak aurkeztuko dira.



## 10. INCUMPLIMIENTOS

- 10.1. El cambio de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención podrá dar lugar a modificaciones en la resolución de concesión.
- 10.2. Se deberá reintegrar la cantidad recibida en los siguientes casos:
- a) No justificar las actividades aprobadas.
  - b) Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas.
  - c) Incumplir las condiciones de esta convocatoria para la concesión de subvención.
- 10.3. Cuando por medio de las funciones de inspección y control, se tengan indicios de la subvención se ha obtenido, disfrutado o destinado de forma incorrecta, el Ayuntamiento podrá acordar la retención de facturas o documentos relativos.
- 10.4. En el caso de que una entidad o persona beneficiaria incurra en alguno de los incumplimientos recogidos en el punto 9.2., en la siguiente convocatoria tendrá una reducción del 10% sobre la ayuda estimada que le pueda corresponder. Esta proporción se irá acumulando a 10% por año en el caso de que se repitan los incumplimientos en convocatorias sucesivas

## 11.- IMPORTE DE LAS AYUDAS, CONSIGNACIÓN PRESUPUESTARIA.

La cantidad destinada por el Ayuntamiento de Berriozar a estas ayudas, consignadas en los presupuestos ordinarios del 2016, es de : 820 €.

## 12.- NORMATIVA REGULADORA

La presente Convocatoria se regirá por las bases recogidas en este documento, y en lo no previsto en él, por la normativa que le sea de aplicación.

Bases de ejecución del Presupuesto del Ayuntamiento de Berriozar para el año 2013 y supletoriamente la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

- Ley Foral 6/1990 de Administración Local de Navarra.
- Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra.
- Ley Foral 13/2007 de la Hacienda Pública de Navarra y, de forma supletoria, la Ley General Presupuestaria.
- R.D. 887/2006 (Reglamento)

Berriozar, a febrero de 2016.

EL ALCALDE / ALKATEA  
Fdo./Sin.: Raúl Maiza

## 10. - EZ BETETZEAK

- 10.1. Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzen aldatzeak emate ebazpena aldatzea ekar dezake.
- 10.2. Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira honako kasu hauetan:
- a) Onartutako jarduerak ez justifikatzea.
  - b) Dirulaguntza eskatutako baldintzak bete gabe lortzea.
  - c) Dirulaguntza jasotzeko deialdi honek jarritako baldintzak ez betetzea.
- 10.3. Ikuskaritza eta kontrol funtzioak gauzaterakoan, dirulaguntza era oker batez lortu edo erabili egin dela antzematen bada, Udalak gaiarekin lotutako fakturak edo agiriak atxiki ahalko ditu.
- 10.4. Erakunde edo pertsona onuradun bat 9.2. atalean aipatzen diren kasuren batean badago, hurrengo deialdian dagokion dirulaguntzaren murrizketa izanen du (%10). Proporzio hori urtez urte metatuko da, ez betetzeak hurrengo deialdietan jarraitzen badu.

## 11.- DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA, AURREKONTU-KONTSIGNAZIOA.

Dirulaguntza hauek emateko Berriozarko Udalak kontsignatutako diru kopurua, 2016ko aurrekontuen arabera, honakoa da: 820 €

## 12.- ARAUTZEKO LEGEDIA

Deialdi hau hemen azaldutako oinarrien arabera arautuko da. Agiri honetan esaten ez denaz ebazteko, ezartzeko moduko arautegiari begiratuko zaio:

- Berriozarko Udalaren 2013. urteko Aurrekontua burutzeko araudia eta, osagarritzat hartuta, Dirulaguntzei Buruzko 28/2003 Lege Orokorra.
- Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Ogasun Publikoaren 13/2007 Foru Legea eta, osagarritzat hartuta, Aurrekontuen Lege Orokorra.
- 887/2006 E.D (Araudia)

Berriozar, 2016ko otsailaren.